

**UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO**  
**KONTRATAZIO DEIALDIA 2018:**  
**III. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA BORDELE)**  
***Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko***  
***zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

**UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2018:**  
**III. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA BORDELE)**

Behin eskaerak ebaluatzeko izapidea amaituta, 2019ko martxoaren 21ean egindako bileran, IGBBk

ERABAKI DU Errektoreordetzaren webgunean onartu, ukatu eta erreserbatutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratzeko agintzea, era honetara banatuta:

- 5 eskaera behin-behinekoz onartuta

**ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ ONARTUTA DITUZTENEK 2019ko martxoaren 27tik apirilaren 9ra arte (biak barne)** dute, kontratua onartu edo bertan behera uzteko, mezu elektronikoko bat helbide honetara bidalita: [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus).

Behin epe hori igarotakoan, ez bada kontratua onartzeko edo bertan behera uzteko mezurik bidali, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

**ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ UKATUTA DITUZTENEK, 2019ko martxoaren 27tik apirilaren 9ra arte (biak barne)** epea izango dute hautagaiak alegazioak aurkezteko.

Epe horren barruan, hautagaiak euren eskaerari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahal izango dute [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera idatzita (mezuaren gaian honako hau adierazi beharko dute: "Tutorekitza BORDELE 2018").

Alegazioak **paper euskarrian** aurkeztu beharko dituzte, **nahitaez**, erregistroan edo, bestela, Correosen bulegoetako batean, bidalketa administratiboaz baliatuz:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)  
Errektoregoaren eraikina  
Sarriena Auzoa z/g  
48940 – Leioa (Bizkaia)

**Erregistroko sarrera zigilurik ez duten edo posta arruntaz data zigilurik gabe bidalitako alegazioak automatikoki ezetsiko dira.**

Aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu Ikerketa Batzordeak, egingo duen hurrengo bileran.

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus).

**Mezuaren gaian hau jarri: ""Tutorekitza BORDELE 2018".**

Leioan, 2019ko martxoaren 26an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA  
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEZTA**

KODEA	NAN EDO PASAPORTEA	2. ETA 3. IRIZPIDEAK	4. IRIZPIDEA	1. IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA
PIFBUR18/08	77216351S	36	5	17,82	58,82	<b>EMANDAKOA</b>
PIFBUR18/10	LR0572661	30	0	26,93	56,93	<b>EMANDAKOA</b>
PIFBUR18/07	130317202074	32	5	18,74	55,74	<b>EMANDAKOA</b>
PIFBUR18/04	080140200026	37	0	17,90	54,90	<b>EMANDAKOA</b>
PIFBUR18/06	45754529P	33	0	21,78	54,78	<b>EMANDAKOA</b>
PIFBUR18/02	72535275Z	34	0	20,54	54,54	UKATUTAKOA
PIFBUR18/03	45786620Z	21,7	8	24,22	53,92	UKATUTAKOA
PIFBUR18/01	76088905Y	32	5	12,59	49,59	UKATUTAKOA
PIFBUR18/09	16098012J	33	0	14,71	47,71	UKATUTAKOA
PIFBUR18/05	15CF20193	27,5	8	5,90	41,40	UKATUTAKOA